

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Ogasun eta Finantza Saila**

Oker-zuzenketa, Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 219/2026 Foru Agindua, apirilaren 27koa, Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren irailaren 24ko 1582/2021 Foru Agindua aldatzen duena; foru-agindu horren bidez, Sozietateen Gaineko Zergaren zergadunen eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez egiteko zehaztapen arauemaileak eta teknikoak arautzen dira, kontabilitateko mugimenduen kapituluaren kasuan izan ezik.

Bizkaiko Aldizkari Ofiziala arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 97/2009 Foru Dekretuaren 17. artikulua 2. zenbakiko 2.2.a) atalak hau ezartzen du: agirien zentzua aldatzen ez duten edo testuingurutik argi eta garbi ulertzeko aukera ematen duten akatsak edo akats materialak direnean, baina gerta daitezkeen nahasteak ekiditeko asmoz zuzentzea komeni dela erabakitzen bada, akats horiek zuzendu egingo dira agiria dagokion organo edo erakundeari testua edo testuaren beharrezko zatia, zuzenketak eginda, berriro bidal dezan eskatu ondoren.

Sozietateen gaineko zergaren zergadunen eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuak, kontabilitateko mugimenduen kapituluaren kasuan izan ezik, Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez egiteko zehaztapen arauemaileak eta teknikoak arautzen dituen Ogasun eta Finantzen foru-diputatuaren irailaren 24ko 1582/2021 Foru Agindua aldatzen duen Ogasun eta Finantzen foru-diputatuaren apirilaren 27ko 219/2026 Foru Aginduan (2026ko maiatzaren 4ko Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 81. zenbakia) halako akatsak daudenez, zuzendu egin behar dira.

— 5. orrialdean, software bermatzailea erabiliz emandako fakturen azpikapituluan (eranskina),

Hau dioen lekuan:

HidrokarburoaGordailutikAterata

Hau esan behar du:

HidrokarburoakGordailutikAterata

— 28. orrialdean, erakunde publikoek ordaindutako dirulaguntzen atalaren barruan DDBN datuaren luzeran (eranskina)

Hau dioen lekuan:

5

Hau esan behar du:

6

— 29. orrialdean, irabazi-asmorik gabeko entitateen eragiketetan (eranskina),

Hau dioen lekuan:

EragiketakIrabaziAsmorikGabekoEntitateak (1 - 10.000)

Hau esan behar du:

EragiketakIrabaziAsmorikGabekoEntitatea (1 - 10.000)

— 37. orrialdean, eragiketa-motari dagokion 36. zerrendan (eranskina),



Hau dioen lekuan:

Balioak	Azalpena
C	Ondasunak eta zerbitzuak eskuratzea.
V	Ondasunak entregatzea eta zerbitzuak ematea.

Hau esan behar du:

Balioak	Azalpena
C	Erosketak: ondasunak eta zerbitzuak eskuratzea.
V	Salmentak: ondasunak entregatzea eta zerbitzuak ematea.

Bilbon, 2026ko maiatzaren 22an.—Ogasun eta Finantzen foru diputatua, Itxaso Berrojalbiz Zabala